

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 IKASTURTEA

GRADU AMAIERAKO LANA

EKINTZA SOZIOHEZITZAILE BATETIK ABSENTISMO ESKOLARRARI

AURRE EGITEN

Egilea: Miren Edurne Antxia Baños

Zuzentaria: Miren Nekane Beloki

Leioan, 2023ko ekainaren 5ean

Orrialdea

SARRERA.....	5
1. MARKO TEORIKOA	6
2. METODOLOGIA ETA LANAREN GARAPENA	11
3. EMAITZAK	14
4. ONDORIOAK.....	24
5. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA	26
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	27

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Orrialdea

Grafikoa 1: 2021-2022-ko ikasle absentisten kopurua mailakatuta..... 14

Grafikoa 2: Absentismoa adingabeengan izan ditzakeen ondorioak. 19

TAULEN AURKIBIDEA

Orrialdea

Taula 1: Ikasle absentistak DBH-n. 15

Taula 2:Ikasturte desberdinetako ikasleria absentistaren kopurua..... 16

Taula 3: Bilboko auzo desberdinetako ikasle absentisten kopurua..... 16

EKINTZA SOZIOHEZITZAILE BATETIK ABSENTISMO ESKOLARRARI AURRE EGITEN

Miren Edurne Antxia Baños

UPV/EHU

Absentismoa eta bere barne dauden absentismoko jokabideak ezin dira kultura kontu bat bezala ulertu. Arazo konplexua da, bazterketaren eta isolamendu sozialaren adierazle nabarmenak izanik. Fenomeno hau eragile desberdinetatik eraginda sor daiteke, lanean zehar ikusiko dugun bezala. Azken finean, adingabeak pairatzen duen desberdintasun egoera bat da, eragile gisa gizartea, familia eta komunitatea izanik. Horregaitik txosten honetan Bilboko auzo desberdinetan existitzen den absentismoa ikertuko da. Ikusiko dugu ere gizarte hezitzaileek zer egiten duten egoera honen aurrean. Eta bere esku hartze soziohezitzaileen gakoak aztertuko dira, fokua jarriz adingabe absentista eta bere familian martxan jartzen duten estrategietan.

Absentismo eskolarra, gizarte hezitzailea, esku hartze soziohezitzailea, hezkuntza, arazo soziala

No se puede entender el absentismo ni sus conductas absentistas como algo cultural. Es un problema complejo y un gran indicador de exclusión y aislamiento social. Este fenómeno puede darse por distintos factores, como ya veremos a lo largo del trabajo. Al fin y al cabo, es una situación de desigualdad para el menor, teniendo como agente la sociedad, familiares y comunidad. Para ello, en este informe se investigarán los datos de absentismo que existen en los diferentes barrios de Bilbao. Veremos también qué hacen los/las educadores/as frente a ello. Y analizaremos las claves de su intervención socioeducativa, poniendo el foco en las estrategias que utilizan con un menor absentista y su familia.

Absentismo escolar, educador/a social, intervención socioeducativa, educación, problemática social

Absenteeism and truant behaviors cannot be understood as something cultural. This phenomenon is a complex trouble and a significant indicator of exclusion and social isolation. It can be created by different factors as we will see throughout. After all, it is an inequality situation for the child, being the society, family and community agents. For this purpose, this report will investigate the absenteeism in different neighbourhoods of Bilbao. Furthermore, we will see what social educators do. And we will analyze the keys of their socio-educational intervention, focusing on their strategies that they use with a truant child and his/her family.

School absenteeism, social educator, socio-educational intervention, education, social problem

SARRERA

Gazteen hezkuntza eta prestakuntza garrantzi handia dute garapen pertsonalerako, baita gizarte osoarentzat ere. Hori dela eta, oinarrizko eskubide bihurtu da herritar guztientzat. Hezkuntza, oinarrizko eskubide batenez derrigorrezko asistentzia eskatzen du; Espainian, gutxienez adingabeak 16 urte izan arte. Gurasoek edo tutoreek dute hezkuntza eta adingabearen garapenarekin zerikusia duen guztiaren ardura (Álvarez, 2012).

Herreraren hitzetan (2016), absentismo eskolarra arazo sozial gisa tratatu izan da beti, adingabeen eskola uzte goiztiarra eraginez. Hots, adingabeak eskolara joateko motibazioa galtzen du. Fenomeno hori hezkuntza problematika batekin lotzen dugu, eta arazo horrek eskola eremuari eta irakasleei bakarrik eragiten diela uste da. Hala ere, beste hainbat faktorek eragina dute, besteak beste, testuingurua, familia, berdinekiko harremanak... Izan ere, jokabide eredu desegokiak sortzen dira, eta familia eta eskola mehatxu bihurtzen zaie. Absentismo egoerak ez dira berriak, eskola absentismoa fenomeno sekularra eta historikoa izan da (Gracia, 2005).

El absentismo escolar es un tema muy actual y de gran importancia. El absentismo, junto con la desescolarización y el abandono escolar es cada vez mayor en el sistema educativo, son un gran problema que tiene la educación, pero a los que actualmente no se les da la consideración que deberían. (Ortiz et al., 2017. 239 or.).

Problematika sozial batenez, gizarte hezitzailearen esku hartzea funtzeskoa da. Hain zuzen, hezitzaileak adingabearekin lan egiteaz gain, eskolarekin eta familiarekin batera ere jardun dezake. Hau da, esku hartze sakona jorratu behar du fenomeno hau geldiarazteko. Orduan, beharrezkotzat jotzen dut gizarte hezitzailearen zereginak eta gaitasunak ikertzea eta hauek absentismo eskolarraren aurrean duten eragina aztertu. Izan ere, absentismoa arrazoi desberdinen eraginez ematen da. Hauek ondorio latzak ditu bai adingabea zein familiarengan, geroago aztertuko dugun moduan. Hortaz, lan honekin ekintza soziohezitzaileak absentismo eskolarrari aurre egiteko dituen gakoak aztertu nahi da. Horretarako, ikerketa lan honetan absentismo eskolarraren inguruko datuak jasoko dira Bilboko testuinguruan.

1. MARKO TEORIKOA

Absentismo eskolarraren kontzeptua

Hezkuntzarako eskubidea, berezko eskubidea da gizarte eboluzionatu eta demokratikoentzat. Eskubide horri esker, pertsonak erabat gara daitezke, bizi diren gizarteko gatazkak murriz dezakete, eta gaitasun eta ongizate handiagoa landu dezakete (Sáez, 2005).

Espainiako egungo hezkuntza sistemak hamar ikasturteko derrigorrezko eskolatze tarte bat du ezarrita; Lehen Hezkuntza (LH¹), 6 eta 11 urte bitartean eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH²), 12 eta 16 urte bitartean. Konfigurazio hori duela ia hiru hamarkada ezarri zen, 1990ean, Hezkuntza Sistemaren Lege Organiko Orokorrarekin (LOGSE, gaztelaniaz) (Cruz et al., 2017).

Hainbat autore absentismo eskolarrari buruzko definizio ezberdinak eskaintzen dizkigute; Ribaya-ren ustetan (2011), absentismo eskolarra ikasleak eskola jaurdinaldietara ez joatea, justifikatuta eta justifikatu gabe izanik eta ekintza hau ohikoa izanda da. Hau da, eskolatzerik ezak eta ikasleak ikasgeletara ez joateak absentismo eskolarra deritzo.

Beste definizio bat honakoa izan daiteke: derrigorrezko eskolatze adinean dagoen adingabe batek ikasgelan justifikaziorik gabe huts egitea (Frutos et al., 2019).

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan ez da agerikoa haurrek porrot egin dutela. Baina, LH-ko 3. mailatik aurrera, eskola absentismoa gehiago nabarmentzen da. Absentismo horren arrazoi eta ondorio nagusia eskola porrota da, eta horren erantzukizuna hezkuntza zentroek eta familiek dute, familia desorekei lotuta aurkezten denean (Ribaya, 2011). Arazoa garaiz konpondu edo tratatu ezean, epe laburrean arazo larria bihur daiteke hezkuntza sistemarentzat, hain zuzen, eskola porrota. Aldi berean, epe ertain edo luzean, adingabean eragin latzak ditu; bazterkeria soziala, lanpostu bat lortzeko zailtasunak, autoestima baxua... (VV.AA, 2003). Absentismoa estu lotuta dago ikaskuntza eta eskola garapen egokia lortzeko ezintasunarekin. Maizegi, absentismoak, adingabea bazterketara eta porrotera eramaten du (Cruz et al., 2017).

¹ Hemendik aurrera LH

² Hemendik aurrera DBH

Eskola absentismoarekin lotutako hiru absentismo mota bereiz ditzakegu. Alde batetik, absentismo larria; ikaslea ikastetxean eskola egunen %50 baino gehiago ez doanean ematen da. Bestalde, absentismo ertaina dago, hau, eskola egunen %25 eta %50 artean ikastetxera joaten ez denean da. Azkenik, absentismo baxua, adingabea eskolara %25etik behera joaten ez denean da (González, 2005).

Horregatik, eskola absentismoa bezalako fenomenoak garrantzi handia hartzen du gaur egun. Hezkuntza sistemak aurre egin beharreko erronka handienetako bat da haur guztien aukera berdintasuna bermatzeko (Pérez et al., 2013).

Absentismo eskolarraren faktore-eragileak

Absentismo eskolarra faktore anitzen ondorioz gauzatzen da. Jatorrian hainbat eragile eta arrazoi daude, alde batetik testuingurari dagozkionak; hain zuzen, familia, eta hezkuntza sistema (González, 2005) eta bestalde, adingabeen faktore indibidualak. Beharrezkoa da ikasleen bizitzak baldintzatzen dituzten faktoreak, baldintzak, aldagaiak, familia, ekonomia, gizartea, kultura eta hezkuntza adierazleak ezagutzea. Faktore horiek, lehenik, hezkuntza bazterketara eta, ondoren, gizarte bazterketara eramán ditzakete (Frutos et al., 2019). Gonzalez-en ustetan (2005), problematika hau eragin negatiboa du ikasleen prestakuntzan, eta eragina du ikasleen garapen pertsonalean eta sozialean. Beraz, garrantzitsua da fenomenoaren jatorria identifikatzea, hobeto landu eta bideratu ahal izateko (Ribaya, 2011).

Familia, eskola absentismoaren eragilea suerta daiteke. Fenomeno hau, familiak eskolara joateko duen kezka eta erantzukizuna, txikia edo nulua izatearen ondorioz sortzen da. Azken finean, familiak hezkuntzak duen balio kulturalik ez izateagatik ematen ahal da. Hau da, hezkuntzari ez diote behar bezalako garrantzirik ematen, hots, eskola ordutegietan diziplinarik ez dagoelako. Horren ildotik, familia etorkinen kasuan, eskola absentismoa dagoela baieztatzen da, batez ere, herrialde berrira egokitzeko lehen etapetan. Izan ere, gurasoek beraien lan egoerari eta etxebizitzaren bilakaerari arreta gehiago eskaintzen diotelako seme-alaben eskola ibilbideari baino (Ribaya, 2004).

Faktore anitzeko ikuspegi batetik, Aguado-k (2005) adierazi du eskola absentismoaren kausa gizarte ingurunean dagoela, beste faktore batzuen artean. Eredu sozialen, Aguado-k (2005) Mallet-ekin (2016) bat egiten du hainbat eragileekin; hots, maila akademiko

baxuak dituzten eredu absentistak, erreferente akademikorik ez izatea eta ikasteko estimulaziorik ez izatea.

Espanian, gurasoek edo legezko tutoreek eskola absentismoa baimentzea, familia uztea izeneko delituaren barruan dago. Horrek esan nahi du salaketa bat jaso baino lehen, dagokion adingabeen fiskaltza zenbait zirkulaziotan egiaztatzen bada, gurasoak delitu horrengatik akusatuak izan daitezkeela. Auzitegi batera eraman daitezke eta, hala badagokio, espetxe zigorra jaso dezakete (Cruz et al., 2017).

Fenomeno honen beste jatorri bat eskolan bertan egon daiteke, absentismo mota hori ikaslea eskolara ez egokitzeagatik agertu daiteke. Izan ere, sarritan irakaskuntza ez da erakargarria izaten adingabearentzako, aspertu egiten da eta ez ditu aurrerapenik ikusten bere irakaskuntza prozesuan. Gerta liteke, halaber, hezkuntza erakundeak berak, baliabide falta izatea banakako tratamendua behar duten ikasle batzuen zailtasunak eta ezaugarrietara moldatzeko (Ribaya, 2004). Mallett-ek (2016), eskolan identifikatutako eta absentismoaren garapenean eragina duten beste faktore batzuk identifikatzen ditu; hala nola, eskola giro negatiboa edo ez segurua, kokapen akademiko desegokia edota bullying biktimizazioa.

Horren ildotik, Mallett-ek (2016) hainbat eragile arrisku faktore indibidual gisa identifikatzen ditu; besteak beste, jarduera akademiko baxua, ikasturtea errepikatzea, identifikatu gabeko hezkuntza premia bereziak izatea, parekoekin harreman positiborik ez izatea, osasun mentaleko arazoak edo substantzien abusu arazoak eta eskola alienazioa. Horrek zerikusia du eskolaren eta hezkuntza sistemak dituen gabeziekin, aurretik aipatutako moduan. Hots, eskola porrotaren zurrunbiloan sartzen denak gero eta zailagoa du bertatik atera ahal izatea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduaturik ez duenak, zailtasun gehiago izango ditu informazioa eta ezagutza eskuratzeko moduko lan kualifikatua aurkitzeko (Giménez eta Marhuenda, 2012, 192. or.).

Ikasle absentistek, ikasle ez absentistekin alderatuta, autokontzeptu akademikoa, autoestimua eta gaitasun soziala maila baxuagoak garatzen dituzte. Horren arrazoa, ikasle horien gurasoek kontrolari ematen dioten balioa txikiagoa da absentistak ez diren ikasleek ematen dutena baino. Familia harremanak gatazkatsuagoak direla eta, familian nagusi den hezkuntza estiloa permisiboa izaten ohi da (Martínez eta Álvarez, 2005).

Absentismoaren inguruko begirada holistikoa

Orain arte aipatu dugun ondorioz, absentismoaren tratamendua ez da ikasleak duen arazo gisa tratatu behar. Arrisku faktoreetan dauden kausetan oinarrituta heldu behar zaio (Rué, 2003). Ezin dira ikastetxeek bakarrik ebatzi, ikastetxeek, hezkuntza zerbitzuek, Gizarte Zerbitzuek eta gizarte ekimeneko erakundeek esku hartze konplexu eta koordinatuak egin behar baitute (González, 2005). Martínez-Arias et al. (2007) egindako ikerketa batean, ondorioztatu zuten garrantzitsua dela jokabide arduragabeak murriztea eta gurasoek seme-alaben ikasketetan kezka eta inplikazio handiagoa bat izatea sustatzea.

Azken batean, Gracia-ren ustez (2005), absentismoaren fenomenoaz aztertzeak planteamendu holistikoa eskatzen du. Gizarte eta eskola desberdintasunen egiturazko baldintzatzaileak kontuan hartzen dituen, bai eta ikuspegi mikrosoziologiko eta interaktibo bat hartzea ere, prozesuak ulertzea ahalbidetuko duena (Gracia, 2005).

Hortaz, ikastetxera ez joatearen prebentzioa eta esku hartze goiztiarra funtsezkoak dira eskolatik urruntzen edo aldentzen hasi diren ikasleentzat (González, 2015). Beraz, absentismoaren problematikarekin ondo jarduteko, arrisku faktoreak aztertu behar dira; adingabeak ingurunearekiko duen integrazio maila, familia egoera baita ikaslearen egoera pertsonala. Horrez gain, eskola erakundeak bere gain hartutako erantzukizunak ikertu eta ikasleak eskola ingurunearekiko duen erresistentzia aktiboaren fenomeno gisa aztertu behar du (Vázquez eta Caballero, 2013).

Estatua eta bere erakundeak, sozialki, politikoki eta araudiaren arabera, jokabide absentistak hautematen direnean, betebeharrak proaktiboak betetzera behartuta daude. Beharrezko giza baliabideekin eta baliabide materialekin esku hartu behar dute. Hala ere, esku hartze erreaktiboekin baino prebentzioaren ikuspegitik jardutea litzateke egokiena, ahal den guztietan (Cruz et al., 2017).

Melendro-ren esanetan (2008) eskola absentismoa, aipatutako moduan, ez da soilik hezkuntza sistemak duen arazo bat. Gizarte hezitzaileek maiz izaten duten hezkuntza problematika bat da ere, eta aspalditik ari dira lanean haien ondorioak minimizatzeke. Hortaz, absentismoari modu integralean heldu behar zaio, ez da soilik eskola erakundearen ardazu behar (Álvarez, 2012). Hori da esku hartzeko espazio tradizionala bat, hasiera batean eremu komunitariotik eta gizarte zerbitzuen eremutik. Orain, gero eta gehiago, ikastetxeetako lan taldeetan duen presentziaren bidez lantzen da (Melendro, 2008). Irakasleen kolektiboak aspalditik eskatzen du ikastetxeetan diziplina anitzeko

profesionalek parte hartzea. Haien errealitate berriei aurre egiteko, beti ere espezializazio egoki batekin; hau da, gizarte hezitzaile eta langileak (Hernández eta Sancho, 2004).

Absentismoaren lanketa gizarte hezkuntzaren ikuspegitik

Gizarte Hezkuntza denboran zehar eraikitzen joan den lanbidea da. Gizarte eta hezkuntza ekintzako testuinguru askotan garatutako gizarte laneko praktika eta ereduak erantzuten zieten lanbideetatik abiatu izan da. Gizarte hezkuntzako profesionalaren garapena, haren prestakuntzaren mende egongo da. Baina baita haren bizitza pribatuaren, esperientzia profesionalen eta ikaskuntza esperientzien mende ere. Ildo horretan, gizarte hezitzaileen bizitza historiek ikaskuntza prozesu profesionalak garatzen laguntzen dute. Eta beste hezitzaile batzuen esperientziari esker eskuratutako ikaskuntzez jabetzen, balioesten eta aitortzen laguntzen die. Era berean, bizipenen ezagutza profesionala beste profesional batzuekin partekatzeko bitartekaritza egokiak dira, esperientzia horiei esker lanbidea eraikitzen jarraitu ahal izateko (Peregrina et al., 2014).

Gero eta argiago dago hezkuntzako profesionalen zeregina funtsezkoa dela hezkuntza prozesuen arrakastan eta kalitatean (Peregrina et al., 2014). Romans-en et al. (2000) arabera, Gizarte Hezkuntza, problematika eskolarrei buruz arduratu behar da. Aldi berean, eskola ere Gizarte Hezkuntzaz arduratu behar da, hots, eskola batean sentimenduei, gatazka sozialei, bazterkeriari, biolentziari, drogei... buruz hitz egin behar delako. Gizarte Hezkuntza tokia duela eta izan behar duela hezkuntza sistemaren barruan ulertzen da, hezkuntzaren zati bat baita. Disziplina hau garrantzitsua da adingabeek mundua ulertzeko, prestatzeko eta enplegu bat lortzeko beharrezkoak diren ezagutza zientifikoak eskuratzeko. Eta, horrez gain, gizarteak eta eskolak ez dute ahaztu behar Gizarte Hezkuntza funtsezkoa dela haurren garapen integralerako, herritar kritiko eta osoak izaten ikas dezaten eta heldutasunez eta erantzukizunez jarduteko eta bizitzeko gai izan daitezen (Hernández, 2013). Izan ere, gizarte hezitzaileak baliabide profesionalak dira, ikastetxearen kanpoko munduarekin harremanak dute, gizarte eta hezkuntza jarduera alternatiboetatik eta udal eta gizarte zerbitzuetatik hurbil daude eta parte dira ere (Galán eta Castillo, 2008).

Beraz, esan daiteke gizarte hezitzailea familiekin eta komunitatearekin ez ezik, ikasleekin eta irakasleekin ere eskola sistemaren barruan lan egiteko gai den profesionala dela. Izan ere, gizartearen existentzia diren problema sozialak eskolan eragina dute. Horrez gain, irakasleek ez daude guztiz prest horrelako arazoei aurre egiteko (Hernández, 2013). Oro

har, hezitzaileak oso lan interesgarriak egiten ari dira, lehen ikastetxeak apur bat ahaztuta zeuden eremuetan, denbora eta prestasun faltagatik. Hainbat gai landu dezakete, hala nola, bullying-a, hain da gaurkotasuna, eskola absentismoa, genero indarkeria, tratu txarrak, droga kontsumoa, gurasoen prestakuntza eta ikastetxearekiko hurbilketa, edo gizarte komunitate osoa eskola bizitzan sartzea (Galán eta Castillo, 2008).

Gizarte hezitzaileak eskaintzen duen bitartekaritza baliagarria izan daiteke eskolaren eta ingurunearen arteko harremanaren etengabeko zehaztapen funtzionala egiteko. Zehaztapen hori, ingurune alderdi kognitiboaren eta kulturalaren arteko loturan oinarritzen da. Hezitzaileak eskola kultura eta komunitatearen kultura bi norabidetan edo norabide anitzetan integratzeko balioko du (Esteban, 2014).

2. METODOLOGIA ETA LANAREN GARAPENA

Lan hau, lehendabizi, ikuspegi kualitatibotik aztertuko da. Ikerketa kualitatiboa, definizioz, datu deskribatzaileak sortzera bideratzen den ikerketa da. Hala nola, pertsonen hitzak eta diskurtsoak, zeinak ahoz eta idatziz adierazten baitituzte, bai eta behatzeko moduko jokabidea ere (Taylor y Bogdan, 1987). Ikerketa kualitatiboak, fenomeno baten sakontasuna ulertzea ahalbidetzen du, gizarte eragileen begiradatik abiatuta (Cueto, 2020). Aztertu beharreko gaia fenomeno soziala izanik, metodologia honek gaia sakontasunez aztertzeko aukera ematen du. Hala ere, lana osatzeko bigarren mailako datu kuantitatibo batzuk erabiliko dira, txosten batetik hartuak.

Helburuei erreparatuz, Bilboko testuinguruan absentismo eskolarraren inguruko datuak jaso nahi direnez, Bilboko Absentismo Eskolarraren Programaren (AEP³) memoriaren datuak erabiliko dira. Programa hau Bilboko udaletxea finantziazten duen programa bat da. Bilbo distrito bakoitzean gizarte hezitzaile bat edo bat baino gehiago⁴ dago auzoek duten absentismo eskolarrari aurre egiteko. Hortaz, kurtso amaieran auzo bakoitzeko datuak biltzen dituzte memoria batean plasmaturik. Bertan, batez ere, auzoen arabera banatzen dituzte datuak, eta ondoren, ikasturteen arabera, LH-tik DBH-ra. Orduan, bigarren mailako datu kuantitatibo hauek erabiliko ditut lana indartzeko.

³ Hemendik aurrera AEP

⁴ Distrito batean, auzo bat baino gehiago dago, orduan hezitzaile bat baino gehiago jardun behar du bertan

Hurrengo helburuari dagokionez, arazo honen aurrean, gizarte hezitzailearen funtzioak eta gaitasunak aztertu nahi dira. Horretarako dokumentuen analisi bat jorratuko da. Dokumentu horien artean absentismoaren eta eskola jazarpenaren aurkako prebentzioko eta esku hartzeko udal jardunbide egokien katalogoa aztertuko da, baita gizarte hezitzailearen kompetentzien eta eginkizunen katalogoa ere. Izan ere, 2007an, Gizarte Hezkuntzako Estatuko Elkarreak (ASEDES⁵) eta Gizarte Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusiak (CGCEEES⁶) gizarte hezitzailearen zeregin, betekizun eta egin beharreko artikulazio dokumentu profesionalizatzaileak deitutako dokumentuak argitaratu zuten. Gizarte Hezkuntzaren hurrengo definizioa aurkezten dute:

Derecho de la ciudadanía que se concreta en el reconocimiento de una profesión de carácter pedagógico, generadora de contextos educativos y acciones mediadoras y formativas, que son ámbito de competencia profesional del educador social, posibilitando: la incorporación del sujeto de la educación a la diversidad de las redes sociales, entendida como el desarrollo de la sociabilidad y la circulación social; la promoción cultural y social; y la promoción cultural y social, entendida como apertura a nuevas posibilidades de la adquisición de bienes culturales, que amplíen las perspectivas educativas, laborales, de ocio y participación social. (ASEDES eta CGCEEES, 2007, 12. or.).

Gizarte Hezkuntza eraikitzen ari den lanbidetzat hartzen da, nahiko gaztetzat, eta bere profesionalizazioa hainbat gizarte eragilerekin lotuta dago (ASEDES eta CGCEEES, 2007). Peregrina et al. (2014) hori ere aitortzen zuten, izan ere, beraien ustez, Gizarte Hezkuntza denborarekin eratzen joan den lanbidea da. Halaber, gizarte hezitzailea hezkuntzaren arloko profesionala da, eta bere oinarritzko funtzioa hezkuntza harreman bat sortzea da, pertsonari bere bizitzaren protagonista izaten laguntzeko. Gainera, gizarte hezitzailearen kompetentzien eta eginkizunen katalogoan aitortzen den moduan (ASEDES eta CGCEEES, 2007) gizarte hezitzaileak, bere gizarte eta hezkuntza ekintza guztietan, bere zeregin profesional gisa, pertsonari, taldeari eta komunitateari lagunduko du. Erantzukizunetik abiatuko da, bizi kalitatea hobetu dezaten. Horrenbestez, ez dagokio protagonistaren papera gizarte eta hezkuntza harremanetan, eragindako pertsonak, taldeak edo komunitateak ordezkatzuz.

Azkenengo helburua, ekintza soziohezitzaileak absentismo eskolarrari aurre egiteko dituen gakoak ikertzea da. Horretarako, elkarrizketaren tresna erabiliko da. Elkarrizketa hau AEP-ko programan lan egiten duten 4 hezitzailei egin zaie. AEP-ren kudeaketa, 11 hezitzailek egiten dute, eskola bitartekari gisa. Bitartekari horiek udalerriko oinarritzko

⁵ Hemendik aurrera ASEDES

⁶ Hemendik aurrera CGCEEES

gizarte zerbitzuei atxikita daude, eta oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzaren lurraldean edo auzoetan kokatutako ikastetxeetan erreferente dira. Hiru hezkuntza etapetako (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza) ehun ikastetxe publiko eta itundu baino gehiagorekin koordinatzea barne hartzen du. Programa honetako hezitzaileek, eskola-absentismoa pairatzen duten adingabeen kasuak eta egoera aztertzen dute eta jarraipen bat egiten diete, bai adingabeei zein familiei. Ikastetxe edo sistemako baliabide batek (Osakidetzako pediatria, adibidez), jakinarazpen-fitxa bat egiten duen bakoitzean (“Haurtzaroan eta nerabezeroan egon daitezkeen arrisku egoerak jakinarazteko fitxa”⁷), balioespen prozesu bat hasten da adingabeak desegiteko baliozko egoeragatik. Horregaitik, Bilbon absentismoarekin lan egiten duten hezitzaileak elkarrizketatzea erabaki dut.

Praktikak AEP-ko hezitzaile koordinatzailearekin egin nituen, beraz, elkarrizketak egiteko, lehenik eta behin, berarekin harremanetan jarri naiz. Ikerketaren gakoak azalduta eta elkarrizketaren atalak eta galderak erakutsita, Bilboko auzoak erreparatu genituen. Distrito bakoitzaren datuak begiratu, 4 auzo aukeratu genituen (Deustu, Uribarri, Indautxu eta Zorrotza). Auzo horien hautapena bi arrazoiengandik egin zen; batzuk, nigana zuten hurbiltasunagaitik erabaki ziren, errezagoa zelako. Eta beste batzuk, datu interesgarriak aportatu dezaketelako, auzo potenteak baitira. Jarraian, koordinatzailea auzo horietako hezitzaileekin kontaktuan jarri zen elkarrizketaren berri emateko. Azkenik, hezitzaileek baietza eman zutenean beraiekin kontaktuan jarri nintzen dei baten bitartez.

Erdi egituratutako elkarrizketa da, izan ere, galdera zehatzak izateaz gain, galdera eta erantzun espontaneoak ager daitezke. Elkarrizketaren estrukturalari dagokionez, hiru zutabetan banatuta dago; lehenengoa, absentismo kontzeptuaren inguruko galderak daude. Horrela absentismoaren inguruan duten ikuspegia kontuan hartuko da eta honek adingabeen dituen eragina. Bigarren zutabea, gizarte hezitzailearen esku-hartzean sakondu da; hau da, zer nolako dinamika eta estrategiak erabiltzen dituen absentismoa murrizteko. Azkenik, hirugarren zutabea, gizarte hezitzailearen papera eremu honetan ikertu da.

Elkarrizketa egiteko tokia beraiek lan egiten duten bulegoan da, hau da, hautatutako auzoetara hurbildu naiz. Elkarrizketaren iraupena ordu betekoa izan da, gutxi gorabehera,


⁷ Eranskinetan sartuta

beti ere zeozer gehiago hitz egin behar bada luza daiteke. Elkarrizketa orri fisiko batean bete da eta nik hasi naiz idazten; hala ere, beraiek zeozer idatzi nahi badute aukera izan dute. Elkarrizketatu bakoitza kode bat du, konfidentziasuna dela eta. Guztiak Gizarte Hezitzaileak direnez, horrela izendatu diet; Gizarte Hezitzaile 1 (G.H.1), Gizarte Hezitzaile 2 (G.H.2), Gizarte Hezitzaile 3 (G.H.3) eta Gizarte Hezitzaile 4 (G.H.4).

3. EMAITZAK

Datu kuantitaboei erreparatuz, Bilboko AEP-ko memoriatik, 2021-2022 ikasturteko informazioa aztertuko da. Memoria honetan, Bilbo auzo bakoitzeko absentismoa neurtzen da, maila eta hezkuntza zikloaren arabera, horren adierazpena taulak izanik. Hala ere, pasadan urteko memoriarekin aldentzen da eta zifrak konparatzen dira, absentismo ehuneko aldatu baden jakiteko. Auzo bakoitza ere ikertzen da eta ehunekoak ere kalkulatzen dira.

Grafikoa 1: 2021-2022-ko ikasle absentisten kopurua mailakatuta.



Iturria: AEP-ko memoria

Ikasturte horretan, guztira, 1.284 ume eta nerabe izan ziren absentista; Haur Hezkuntzan, 246, hau da, %19,14; Lehen Hezkuntzan, 578 ume, alegia, %44,98 eta Bigarren Hezkuntzan 460, hots, %35,88. Azken hezkuntza maila honetan, DBH, Osagarrizko Hezkuntza, Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Gela egonkorra sartzen dira. Guztira, ikasleen matrikulazio osoarekiko ehunekoa, %3,5 absentista izan zen. Ikus dezakegu absentista kopuru altuena Lehen Hezkuntzan dagoela, ehuneko altuena

izanik. Aipatzekoa da, Haur Hezkuntzako zikloa derrigorrezkoa izan ez arren, absentismoa kontabilizatzen dela etorkizuneko kondukta absentistak saihesteko. Horrela, Lehen Hezkuntzako ziklora pasatzean kondukta horiek berriz ez errepikatzeko eta umea eta bere familia absentista ez bihurtzeko.

Garrantzitsua da familiako zenbat adingabe absentista kopuru zehatza aztertzea; izan ere, absentismo puntualeko kasuetan izan ezik, ezarritako eta kronifikatutako jokabide absentistak identifikatzeko aukera ematen du, eta horiek familia absentista izenda ditzakegu.

Aipatzeko da, beheko taula ikertuz, Bigarren Hezkuntzan, DBH 1. eta 2. mailetan absentista gehien metatzen da. Izan ere, hezkuntza etapa aldatzea erronka handia da ikasle ahulenentzat, eta, batzuetan, zaila da gainditzea. Halaber, aipatu beharra dago, DBH 3 eta 4. mailetara heltzen ez direnak orokorrean errepikatu egin ohi dute eta beraz DBH 1. edo 2. mailan daude oraindik. Hori dela eta, tasa altuenak DBH 1 eta 2-n erregistratzen dira. Ostantxean, Osagarrizko Hezkuntzara joaten dira. Ezin ahaztu, 16 urtetik aurrera hezkuntza sisteman parte hartzeko derrigortasuna existitzen ez dela, horregaitik adin horretara heltzean, badaude ikasleak ikasketak bertan behera uzten dituztenak. Beraz, taulan ikusten da DBH 1 eta 2 absentismo-tasa ia berdinak direla.

Taula 1: Ikasle absentistak DBH-n.

DBH 1	164	%35,56
DBH 2	165	%36,00
DBH 3	65	%14,09
DBH 4	11	%2,38
GUZTIRA	405 ⁸	%100

Iturria: AEP-ko memoria

Beste ikasturteekin alderatuta, 2021-2022 ikasturtean, bai termino absolutuetan, bai matrikulatutako ikasleekin alderatuta, absentismo erregistroen murrizketa nabarmena egon dela. Azpimarratzekoa da, 2019-2020-ko ikasturtean, pandemia izan zela eta,

⁸ Hemen ez dira sartzen Osagarrizko Hezkuntza, Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Gela Egonkorra

ikasturte erdia online irakatsi zenez, ezin izan zen absentismoa guztiz kontrolatu. Oso zaila izan zen benetazko absentismoa neurtzea, izan ere, bazeuden familiak internet sarbide barik edota gailu teknologikorik. Absentismoa ikasleen 359 erregistrotan murriztu da 2020-2021 ikasturtearekin alderatuta. Oraindik pandemia aurreko azken ikasturteko zifretara iristen ez bada ere, erregistroak askoz txikiagoak izan direla nabarmendu behar da.

Taula 2: Ikasturte desberdinetako ikasleria absentistaren kopurua.

	Ikasleria absentista	% matrikulazioarekiko
2018/2019 ikasturtea	1.185	%3.02
2019/2020 ikasturtea	1.069	%2.70
2020/2021 ikasturtea	1.643	%4.18
2021/2022 ikasturtea	1.284	%3.50

Iturria: AEP-ko memoria

Hainbat alderdi nabarmendu behar dira; alde batetik, pandemiak eragindako bi ikasturteren ondoren, bertaratzea eta eskolatzea normalizatu egin dela. Horregatik, azkenengo ikasturte honetan zifra errealagoak lortu egin dira. Horrez gain, COVID-19aren pandemiaren ondorioz osasun mentalarekin lotutako alderdietan asistentzian izandako eragina ere bultzakada bat izan du azkenengo ikasturteko zifretan.

Bestetik, ikastetxeetan zein komunitate mailan programak abian jartzeko hasiera eta aurreikuspena ere areagotu egin da. Horrek, absentismoarekin lotutako babesgabetasun egoerak prebenitzeko eta goiz detektatzeko gaitasuna indartu du. Hots, 2021-2022 ikasturtean, ikastetxeei 36 jakinarazpen fitxa Gizarte Zerbitzuetara bidaltzeko eskatu zaie. Beraz, horrekin absentismoa murriztea eta zifrak normalizatzea lortu egin da.

Memorian ere auzoak aztertzen dira eta bertan dauden absentismoaren zifrak ikertzen dira. Absentismo gehien pairatzen duten auzoak San Frantzisko-La Peña eta Otxarkoaga-Txurdinaga dira. Hain zuzen, %16,19 eta %24,28 zifrekin. Jarraian, Irala-San Adrian eta Errekalde-Peñascal auzoak daude, zifra oso antzekoekin.

Taula 3: Bilboko auzo desberdinetako ikasle absentisten kopurua.

AUZOAK	GUZTIRA	%
01 Deustu-San Inazio	52	%4,05
02 Uribarri-Zurbaran	94	%7,32
03 Otxarkoaga-Txurdinaga	312	%24,28
04 Santutxu-Bolueta	175	%13,70
05 Alde Zaharra	94	%7,32
06 San Frantzisko-La Peña	208	%16,19
07 Irala-San Adrian	113	%8,79
08 Errekalde-Peñascal	116	%9,03
09 Abando-Indautxu	28	%2,18
10 Zorrotza	39	%3,04
11 Basurto-Altamira	43	%3,35
Beste batzuk ⁹	10	%0,78
Guztira	1.284	%100

Iturria: AEP-ko memoria

Behin datu kuantitatiboak aztertuta, oraingoan datu kualitatiboak ikertuko dira. Elkarrizketatik ateratako informazioa eta erantzunak azalduko dira. Horretarako, lau kategoriak erabiliko dira, lanaren helburuarekin zerikusia dutenak eta elkarrizketetan ikertu denarekin.

Absentismoaren inguruko kontzeptua

Lehenengo kategorian, absentismoaren inguruko kontzeptuan agertutako edo nabarmendu beharreko informazioa azalduko da. Ikus daiteke, absentismoaren kontzeptua, gutxigorabehera oso antzera ulertzen dutela hezitzaile guztiek. Hots, absentismoa kontzeptu global gisa ikusten baitute. Hala dio G.H. 2-ak:

“Derrigorrezko hezkuntzako ikasleak eskolara joaten ez direnean inolako justifikaziorik gabe” (G.H.1, 2023).

Definizio hau, marko teorikoan ikusi ahal dugun moduan, bat egiten du Frutos et al. (2019) autoreen ikuspegiarekin. Halaber, kontzeptu global hau osatzeko jokabide absentistak aipatzen dituzte, besteak beste, inpuntueltasuna, ikasgai zehatz batera huts egitea, txangoetara ez joatea... Azken finean, absentismoa adingabearen hezkuntzarako eskubidea bermatzen ez denean emoten da.

⁹ Albergue Elejabarri, Gizarte-larrialdiak, Gestión de Ayuda de Emergencia

“Absentismoa kontzeptu global bat da, adingabea eskolara huts egiteari hasten denean eta hilabete batean %20-ko absentismoa erregistratzen duenean. Hala ere, absentismoaren kontzeptu globala emateko jokabide absentista batzuk gerta behar dira, besteak beste, inpuntualtasuna, ikasgai zehatz batera huts egitea, txangoetara ez joatea... Eta horien gehiketa absentismoa ematen du” (G.H.1, 2023).

Familia eta adingabearen profilari dagokionez, atentzio asko deitu dit guztiek profil bera azaltzen dutela; hau da, bi motatako profilak bereizten dituzte. Alde batetik, Haur eta Lehen Hezkuntzako “familia absentistak” daude. Hau bat dator Ribaya-k (2004) aitortzen zuenarekin, hots, familia, eskola absentismoaren eragilea suerta daitekela. Etapa honetan, aitortzen dute erantzunkizuna familian dagoela, egia da oraindik umeak oso txikiak direla eta bere gurasoen menpe daudela.

“Haur eta Lehen Hezkuntzan dauden umeak ezin zaie absentista deitu, familiak berak absentistak dira, baina umeak ez” (G.H. 2, 2023).

Horregaitik profil honetan, familiaren aldetik, adingabearekiko gehiegizko babesba dago, familia oso permisiboak izaten ohi dira eta hutsegiteak justifikatzen dituzte arrazoirik gabe. Halaber, familien aurretiko hezkuntzareriko edo eskolarekiko esperientzia negatiboak izatea ere faktore bat izan daiteke absentismoa aregotzeko. Izan ere, beraien ezinegona eta bizipenak umeengan plasmitzen dituzte. Familien barruan ere, hezitzaile guztiek argi duten beste eragile bat, osasun mentaleko arazoak edo gaixotasunak dira. Horiek eragina izan ahal dute umearengan eta eskolara faltatzeko egoeran.


Bestalde, bereizten den beste profila DBH-ko ikasleak dira. Etapa honetan, ikusi ahal denez, jada ez dira “familia absentistak” izendatzen, oraingoan “ikasle absentistak” bezala aipatzen dira. Alegia, ulertzen da adingabeak gaitasunak dituela erabaki propioak hartzeko. Orduan, erantzunkizuna ikasleari dagokio. Honetan ere errepikatzen da aurretiko esperientzia negatiboak izana, adibidez, kurtsoz errepikatzea, bullying-a pairatzea... Mallett-ek (2016) ere bullying biktimizazioa absentismoa garatzeko eragina duen beste faktore gisa aipatzen zuen.

Halaber, adin jakin batera heltzean beste estimulu berri batzuk ager daitezke eta horiei erantzuteko beharra izatea, ondorio negatiboak izan arren, hala nola, drogak, tabakoa... Horrela aitortzen du G.H.1-ak:

“Beste estimulu berrien ezagutza (erretzea, drogak...). Zailtasunak dituzte aisialdia eta denbora librean, hau da, ez dute kirolarik egiten, ez dute horretaz gozaten... Horren ildotik, teknologia berrien abusu eta erabilera txarra erakartzen du” (G.H.1, 2023).

Horrekin batera, motibazio falta dator, izan ere, ezintasun sentimendua hazten zaie. Horrekin batera, autoestimua baxua izaten hasten dira. Ikusi ahal denez, bata besteari elkar eragiten dio.

Grafikoa 2: Absentismoa adingabeengan izan ditzakeen ondorioak.



Iturria: G.H.2

Talde honen barruan ere sartzen dira osasun mentaleko gaixotasunak pairatzen dituzten gazteak. Gero eta presentzia gehiago dute osasun mentaleko gaixotasunek familietan eta adingabeetan.

“Después de la pandemia se ha agravado aún más la cantidad de menores con problemas de salud mental. Antes de la pandemia la edad mínima a tratar era de 15 años en adelante y a raíz de la pandemia ha bajado a los 13 años” (G.H 3, 2023).

Absentismoak adingabearengan dituen eraginak

Bigarren kategorian honetan, absentismoak adingabeengan dituen eraginak azalduko dira. Ikusi dugun moduan, absentismoak ondorio latzak eta anitzak ditu adingabeengan. Martínez eta Álvarez-ek (2005) argi adierazten zuten absentismoak adingabeengan autokontzeptu eta autoestimuan eragin negatiboa zuela. Horrekin batera, beste hainbat kontzeptu batu ditut elkarriketetan eremu pertsonalari dagokionez. Oro har, harremanetarako tresnak izateko eta garatzeko aukera gutxiago izatea, isolamendu soziala pairatzea, motibazio falta...

“Eremu pertsonalean, isolamendu soziala eta pertsonala eragiten du; sozializatzeko zailtasunak, autoestimua eta motibazio falta, frustrazio gaitasun txikia... Eta batez ere, gero eta gehiago ikusten ari garena, osasun mentaleko arazoak” (G.H.2, 2023).

Eremu sozialean, erantzun anitzak agertu egin dira, denak taldearekiko zerikusia dutenak; hain zuzen, talde pertenezia eta identitate falta izatea. Horrek eragin zuzena du berdinekiko sare sozial eskasa eta elkarreraginak murriztuak izatean. Beraz, gaitasun sozialen oztupoak eta zailtasunen agerpena aregotzen da; azken finean, ez badira bere talde edo klasearekin harremantzen, ez dituzte gaitasun sozialak behar bezala garatzen. Berdin gerta daiteke, nagusiekiko elkarreginek. Guztia kontuan hartuz, esan genezake bazterkeria soziala eragin dezakela, VV.AA (2003) aitortzen zuen bezala.

“Talde pertenezia eta identitate falta izatea, espektatiba gutxi eta laburrak izatea taldearekiko. Azken finean, gizarte bazterkeria” (G.H.1, 2023).

“Reducción de redes sociales entre iguales del menor; aparición de dificultades de capacidades sociales y personales, falta de capacidad de resolución de conflictos...” (G.H. 4, 2023).

Horren ildotik, eremu familiarrean ere bazterkeria sozial familiarra garatzea eragiten du. Adingabeak, bere familiaren aldetik, babes faktore gutxiago izan ohi ditu eta adingabeari zailagoa egiten zaio bazterkeria egoera horretatik ateratzea. Aldi berean, G.H.1-ak aipatu duen moduan:

“Anai-arrebak dituztenen kasuan, beraien erreferentzia galtzen dute. Eta horrek, aurretik aipatutako moduan, arlo pertsonalean efektu negatiboak ditu” (G.H.1, 2023).

Azkenik, eremu akademikoan ere efektuak ditu. Ondorio argiena, eta elkarrizketatu guztiek erantzun dutena, enplegu kualifikatu batean sartzeko zailtasunak izatea izan da. Hau da, absentistek aukera gehiago izaten dituzte baldintza kaskarragoak dituzten enpleguetara sartzeko. Halaber, desoreka kurrikularrak ere nabarmenak dira eta hortaz, lan munduan sartzeko atzerapenak pairatzen dituzte.

“En cuanto al ámbito académico, tendrán desajustes curriculares y académicos. Van a tener muchas restricciones para entrar en un empleo cualificado y eso perpetua la exclusión social” (G.H.3, 2023).

Gizarte heztzaileak erabiltzen dituen estrategiak/ekintzak

Aipatutako ondorioak lantzeko, gizarte hezitzaileek hainbat estrategia erabiltzen dituzte. Aurretik bereiztu dudan moduan, bi motatako profil absentista daudenez, profil bakoitzarentzako estrategia desberdinak erabili behar dira. Hots, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen esku hartzearen pisua familiak hartzen du eta DBH-ko ikasleetan, ostera, beraiek dute erantzunkizuna. Hortaz, martxan jarri beharreko estrategiak bi profil hauetan oinarritu behar dira.

“Cuando el alumno está en Haur o Lehen Hezkuntza el peso de la intervención es a nivel familiar. Pero cuando el menor está en DBH la intervención recae en el menor”

(G.H.4, 2023).

Familiak absentismoaren erantzunkizuna dutenean, esku hartzea, batez ere, familiari zuzenduta dago. Hala ere, zeharka umea inplikatzeko da esku hartzean. Hortaz, familiaren dinamikak aztertzeko, eskolako sarreran eta irteeran ikuskaritza lana egiten da, besteak beste, familiaren harremantze era edo puntualtasuna gainbegiratzeko. Batzar indibidualak ere beharrezkoak dira familiarekin binkulazio bat sortzeko (bulegoan, kafe bat hartzen, kalean, familiaren etxean...). Familiak eskolarekin binkulazio eta konfiantza lor dezaten, eskolan batzarrak ere prestatzen dira tutoreekin. Berez, lortu nahi dena arazoa bisibilizatzea da eta horren kontzientziaren gain lan egitea. Behar izatekotan ere etxebizitza bisitak egitea estrategia aproposa izan daiteke. Honekin familiaren ingurunea eta funtzionamendua azter daiteke, beti ere familiaren kontsentimendua izanik.

Erantzunkizuna adingabeak duenean, esku hartzearen oinarria adingabea bera da. Nahiz eta familiarekin zeharkako estrategiak erabili. Honetan, komunikazio espazioak sortu behar dira, berarekin harremana eta konfiantza garatzeko.

“Lehenik eta behin komunikazioa landu, adingabearen konfidantza lortzeko. Gizarte-hezkuntzako eragileen arteko komunikazio espazioak sustatu. Akonpainamenduak egiten dira” (G.H.1, 2023).

Horretarako, bakarkako elkarrizketak funtsezkoak dira, bulegoan, parkean, kalean, etxean... Adin hauetako gazteekin, leku irekietan eta elkarrizketa dinamikoak egitea lagungarriak dira. Izan ere, horiek dira komunikazio eta konfiantzezko espazioak. Eskola eta ikaslearen arteko bitartekaritza landu daiteke, horretarako batzarrak antola daitezke eskolan, eskolako agente profesionalekin. Eskolako patioak ikuskatzeak ere informazio asko ere aporta dezake, adingabearen harremantzeko eta jokatzeko eran. Beste espazio

eta harremantzeko aukera batzuk ere eskeintzea baliagarria da adingabearen gaitasunak handitzeko asmoz.

“A la hora de tener una entrevista con un adolescente busco hacer entrevistas en movimiento, en espacios abiertos, tomando un café, en el parque... Si los cito en mi bulego, que es un espacio cerrado y hermético, se cierran en banda y no puedo obtener resultados” (G.H.4, 2023).

Hala eta guztiz ere, hezitzaile bakoitzak bere estrategia propioa du eta esku hartze bakoitza desberdina da. Orduan agerian dago kasu bakoitzaren arabera estrategia batzuk erabili behar direla eta beste familia batzuekin beste ekintza batzuk.

Nahiz eta estrategia aproposak erabili, noiz behinka, berrerortzea eman daiteke. Hau da, adingabeak eta bere familiak absentista izaten jarraitzen dute. Egoera horren aurrean, estrategia alternatiboak bilatu behar dira, familia eta adingabearekin binkulazio eta harreman handiago bat landuz.

“Tratar de buscar otro tipo de estrategias, estrategias alternativas a las anteriormente usadas. Por ejemplo, si se ha trabajado el absentismo desde la parte legal e institucional y no ha funcionado, se tienen que usar otras estrategias; la vinculación entre el educador, el menor y la familia” (G.H.3, 2023).

Egoera berriz ebaluatu behar da eta orain arte egon diren gabezi posibleak aztertu. Horretarako, aukera ona izan daiteke beste agente desberdin batzuk esku hartzean sartzea. Helburuak ere alda daitezke eta helburu txikiago eta errealistagoak ezarri. Izan ere lortu nahi dena familia eta adingabea eskolara hurbiltzea da.

“Absentismoa behin eta berriz errepikatzen dela adierazten duten datuak daude, nahiko ohikoa da. Ikuskaritzarekin lana egiten da, jokabideak gehiago kontrolatzen saiatuz. Helburu txikiagoekin lan egiten da” (G.H.2, 2023).

Gizarte Hezitzailearen papera/zeregina arlo honetan

Argi dago gizarte hezitzailearen figurak garrantzi handia duela hezkuntzan eta, batez ere, absentismoari aurre egiteko arloan. Hots, Esteban-ek (2014) aipatzen zuen bezala gizarte hezitzaileak eskaintzen duen bitartekaritza baliagarria izan daiteke eskolaren eta ingurunearen arteko harremanaren etengabeko zehaztapen funtzionala egiteko. Beraz,

hori kontuan hartuta, gizarte hezitzailearen zereginaren inguruko emaitzak aztertuko ditut.

Lehenik eta behin, gizarte hezitzaile batek arlo honetan izan beharko lukeen ezaugarriak aipatu nahiko nituzke. Hots, elkarriketatu guztiek bat egin dute izan beharreko ezaugarriekin. Denek bitartekaritza gaitasuna izatea funtzeskoa dela aitortzen dute; izan ere, gizarte hezitzailea bitartekari gisa ulertzen dute gehien bat. Bitartekaritza egoki bat egiteko, komunikatiboa izan behar da, komunikazio trebetasunak izanik. Kontziente izan behar zara batzutan, nahiz eta bitartekaritza egokia egin, martxan jarritako estrategiak ez direla ondo irtengo. Eta horretarako frustraziorako gaitasuna garatzea beharrezkoa litzateke.

“Oinarrizko prestakuntza izan behar du haurrak babesteko sistemari buruz, adingabe baten garapen ebolutiboari buruz, laguntza programei eta profesionalari buruz eta adingabe batek dituen zailtasunei buruz; etika profesionalari buruz, sistema desberdinetan kokatzen jakin behar du, eta bizi dugun gizarte egoera eta ondorioak ulertzen jakin behar du (ahulezia elementu handiak lantzen diren bizi-baldintzak). Ezaugarri pertsonalak ere garrantzitsuak dira; hala nola, bitartekaritza trebetasunak, komunikazio trebetasunak, frustrazioarekiko erresistentzia, etengabeko prestakuntza...”
(G.H.2, 2023).

Gizarte Hezitzaileak adingabearen bizitza bideratzera laguntzen du. Gizarte hezitzaileak laguntzen dio bere bizitzaren inguruko hobekuntzak egitera, bere garapen pertsonala, autonomia eta autoeraginkortasuna bilatzera. Hau guztia, gizarte hezitzailearen dokumentu profesionalizatzaileetan aipatzen da; pertsonen arteko harremanak erraztea, gatazka egoerak minimizatzea eta garapen pertsonal, sozial eta kulturalerako ibilbide berriak erraztea da hezitzailearen asmoa (ASEDES eta CGCEEES, 2007). Era berean, erreferente bihurtzen dira adingabeentzat, alegia, erreferente positiboak, espazio seguru bat bermatu dezaketenak. Errealitatea beste modu batera ikustera laguntzen die. Eta beraz, hurbiltasun handiago bat lor dezakete eskolara eta hezkuntza sistemarekiko, bai adingabe zein familiaren partetik.

“El educador acompaña; ayuda al menor en la búsqueda de mejoría de su vida para que él sea autónomo. Solo estamos durante un tiempo limitado, entonces esas personas tienen que ser capaces de mejorar ellos mismos sus vidas” (G.H.4, 2023).

Azkenik, aho betez baieztatzen dute absentismoa bai murrizten dela. Hala ere, azpimarratu behar dut, agian, adingabe kopuruan ez dela hainbeste nabaritzen, baina kasuen frekuentzian eta larritasunean bai. Hau da, absentisten konpuruan ez da hain murrizketa nabarmena ikusten, beti absentistak daudelako, baino kasuen larritasuna eta arriskua bai murrizten dela. Hala dio G.H.4-k:

“Sí, se reduce. No en grado tan elevado como nos gustaría. Si hemos notado la disminución de frecuencia y gravedad de los casos. Cada vez hay menos casos que registran un porcentaje alto de absentismo. Y cada vez menos frecuencia de los casos, es decir, menos meses de absentismo. No se nota tanto en la cantidad de alumnado, sino en la frecuencia y gravedad” (G.H.3, 2023).

Hala eta guztiz ere, gizarte hezitzaileek ez dute bakarrik lan egiten, sare profesional handi batekin jarduten dira. Ezin dute bakarrik lan egin, hortaz, koordinazio itzela egiten dute esku hartze bat aurrera eramateko. Koordinazio eta sare hauek beharrezkoak dira, beti ere bakoitzak bere lana eta zeregina argi duenean. Elkarrizketatu guztiek aipatu dituzten koordinazio eta profesionalak hauek izan dira:

- Hezkuntza sistema eta eskolako profesionalak (irakasleak, zuzendaritza, inspektorea...)
- Osasun zentruko profesionalak (pediatria, medikuak...)
- Zerbitzu Sozialak (gizarte hezitzaileak, gizarte langintzak, psikologoak...)
- Udaletxea eta Foru Aldundia
- Aisia eta denbora libreko elkarteak
- Auzoko elkarteak

Aldi berean, koordinazio hauek ere absentismoaren eta eskola jazarpenaren aurkako prebentzioko eta esku hartzeko udal jardunbide egokien katalogoan agertzen dira. Hau ikusita, uler daiteke egiten duten koordinazio horiek protokolizatuta daudela eta beharrezkoak direla egitea.

4. ONDORIOAK

Emaitzak kontuan hartuz, ondorioztatu daiteke absentismoa adingabearen arlo askotan, ia guztietan, eragina duela. Hau da ikerketatik atera ahal den ondorio argiena. Gainera,

ikerketan konprobatu egin da egile batzuk aipatzen zutena errealitatean betetzen dela. Besteak beste, Martínez eta Álvarez-ek (2005) ikasle absentistek, autokontzeptu akademikoa, autoestimua eta gaitasun soziala maila baxuak garatzen dituztela ikertu zuten. Elkarrizketetan ikusten den moduan, eremu soziala, familiarra, akademikoa eta pertsonalean mota guztietako ondorio latzak ditu, guztiek elkarregina izanik. Elkarrizketatuek, desoreka kurrikularrak, talde pertinenentzia falta eta isolamendu soziala aipatzen zuten ere. Horrek guztiak, adingabea eta bere familiaren bazterketa soziala eta isolamendua bultzatzen dezakete.

Horren ildotik, ikerketa honek nabarmendu du absentismoaren eta gaixotasuna mentalaren artean egon daitekeen erlazioa. G.H. 3-ak aipatutako moduan, pandemia aurretik 15 urtetik gorako gazteak ziren gehien bat gaixotasun mentalak pairatzen zituztenak. Baina, pandemiaren ondoren, 13 urteko zifrara jeitsi egin da. Hau da, 13 urteko gazteek gero eta gaixotasun mental gehiago garatzen dituzte, datu hau kezagarria izanik. Emaitza hauek kontrastatu daitezke 2. taulan (*ikasturte desberdinetako ikasleria absentistaren kopurua*). Honetan, behatu daiteke zelan pandemia baino lehen absentismoaren ehunekoa %3-koa zela, zifra hau errealista izanik; pandemia ostean, askoz igo zela, %4,18-ra helduz. COVID-a hainbat familia geldiarazi zituen, beldurraren presoak izanik. Aurretik aipatu den moduan, pandemiaren ondorioz osasun mentalekin lotutako alderdietan asistentzian izandako eragina ere bultzakada bat izan du azkenengo ikasturteko zifretan. Halaber, elkarrizketatu guztiek lotura zuzena ikusten dute osasun mentaleko gaixotasunek absentismoa eragin dezaketela eta kontrakoa ere, hau da, absentismoak osasun mentaleko gaixotasunak eragin dezake.

Absentismoak dituen faktoreak alde batera utzita, orain eragileei buruzko ondorioak ikertuko dira. Emaitzetan zein teorian hainbat eragile agertu egin dira, baina nabarmenena familia izan da, Ribaya-k (2004) aitortzen zuen bezala. Elkarrizketetan ere horrela adierazi da; familiek, batez ere, Haur eta Lehen Hezkuntzan, absentismoaren erantzuleak dira. Horren arrazoia, besteak beste, familiek hezkuntza sisteman aurretik izandako esperientzia negatiboagatik izan daiteke. Hau da, beraiek izan duten bizipena beraien seme-alabengan irudikatzen dute, eskolarekiko duten beldurra eta segurtasun eza transmitituz. Horrek, orduan, absentismoa izatera edo jokabide absentistak izatera eragiten du. Kasu honeetan, beharrezkoa da elkarrizketatuek aipatzen duten bitartekaritza lana egitea familia eta eskolaren artean. Azken finean, lortu nahi dena familia eskolara hurbiltzea eta eskola konfiantza espazio bihurtzea.

Horregaitik, ondorioztatzen dut, gizarte hezitzailearen papera funtzeskoa dela arlo honetan. Hots, Galán eta Castillo-k (2008) ziur zeuden Gizarte Hezkuntza tokia duela, eta izan behar duela, hezkuntza sistemaren barruan, hezkuntzaren zati bat baita. Gizarte hezitzaileak adingabearen egoera hobetzen laguntzen du, esku hartze sozio-hezitzaile eta estrategia propioak martxan jarritz. Emaitzetan, hain zuzen, elkarrizketetan eta dokumentuen analisisian argi ikusi dira gizarte hezitzaileak dituen zereginak eta funtzioak arazo sozialen aurrean. Besteak beste, gizarte hezitzaileek, kulturarekin, oro har, zerikusia duten ekintzei eta jardueri dagokien erantzukizun eremua dute. Ekintza eta jarduera horiek ikaskuntza sozialekin eta gizabanakoen etengabeko prestakuntzarekin lotutako helburuak dituzte, bai eta horiek talde, kolektibo eta komunitateetan birstortu eta sustatzea ere (ASEDES y CGCEEES, 2007). Horren ildotik, Esteban-ek (2014) egin zuen baieztapena egokia da hezitzaileen zeregina nabarmentzeko: “Hezitzaileak eskola kultura eta komunitatearen kultura bi norabidetan edo norabide anitzetan integratzeko balioko du” (20. or.).

5. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA

GRAL honetan, etika profesionalaren printzipioak jarraitu egin dira, ondorengoak aintzat hartuta:

Giza Eskubideak errespetatzeko printzipioa; oinarritzko eskubideen esparruan jardun izan da eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean enuntziatutako eskubideen arabera. Ekintza subjektuak errespetatzeko printzipioa ere kontuan hartu da. Parte hartzerako orduan, elkarrizketatuen autonomia eta askatasuna bermatu eta errespetatu izan da. Elkarrizketa egin baino lehen, GRAL-aren helburuak, interesak eta norabideak azaldu zaizkie. Horrekin batera, Informazio arduratsuen printzipioa bete egin da. Izan ere, elkarrizketatuetatik informazioa lortu denez, konfidentziasuna errepestatu da.

Datu pertsonalak batu direnez, hain zuzen, eremu laboraleko datuak, datuen babesa bermatu egin da; subjektuaren baimen informatuaren prozesuari buruz jakintzaz gainera, konfidentziasun eta datuen babeserako jarraibideak aplikatuz. Guztiek GRAL-aren inguruko informazio jaso egin dute elkarrizketa egin baino lehen; gaia, helburuak, non egingo zen, nortzuk egingo zuten ikerketa eta harremanen kontaktua beraien eskura jarritz.

Horrez gain, baimen orri bat sinatu dute non beraien adostasuna, baimena eta parte hartzeko borondatea adierazten duten.

6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Aguado, P. (2005). Programa de prevención y control del absentismo escolar en el Ayuntamiento de Madrid. *Indivisa: Boletín de estudios e investigación*, (6), 249-257. Recuperado de: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1340941>

Álvarez, J. B (2012). Absentismo escolar, atención a la diversidad y educación social en los IES de Vigo. *RES: Revista de Educación Social*, (16), 11.

Asociación Estatal de Entidades de Educación Social eta Consejo General de Colegios Oficiales de Educadoras y Educadores Sociales (CGCEES). (2007). Documentos profesionalizadores: Definición de Educación Social, Código Deontológico del educador y la educadora social y Catálogo de Funciones y Competencias del educador y la educadora social. ASEDES. <https://www.eduso.net/wp-content/uploads/documentos/143.pdf>

Cruz, J. I., De Fez, S. G., & Vidal, R. G. (2017). Adolescentes en situación de reiterado absentismo escolar. Un estudio a partir de las diligencias de investigación penal de la fiscalía de Valencia. *Profesorado, Revista de Currículum y Formación del Profesorado*, 21(4), 159-175. <https://doi.org/10.30827/profesorado.v21i4.10050>

Cueto, E. (2020). Investigación cualitativa. *Applied Sciences in Dentistry*, 1(3).

Esteban, J. A. (2014). EDUCACIÓN SOCIAL Y ENSEÑANZA: LOS EDUCADORES SOCIALES EN LOS CENTROS EDUCATIVOS, FUNCIONES Y MODELOS. *Edetania: estudios y propuestas socio-educativas*, 45, 11-31. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/5009259.pdf>

Frutos, A. E., Rus, T. I., & Pastor, B. (2019). El absentismo escolar en contextos vulnerables de exclusión. *PROFESORADO*, 23(1). <https://doi.org/10.30827/profesorado.v23i1.9147>

Galán, D., y Castillo, M. (2008). El papel de los educadores sociales en los centros de secundaria: una propuesta para el debate. *Educación social: Revista de intervención socioeducativa*.

Gracia, M. G. (2005). Culturas de enseñanza y absentismo escolar en la Enseñanza Secundaria Obligatoria: estudio de casos en la ciudad de Barcelona. *Revista De Educación*, 338, 0347-0374.
https://ddd.uab.cat/pub/artpub/2005/147122/revedu_a2005n338p347iSPA.pdf

Giménez, E., y Marhuenda, F. (2012). Fracaso, absentismo y abandono escolar: reconocer los límites del sistema para corregir y ofrecer alternativas que garanticen el derecho a la educación. En A. Manzanares (Coord.). *Temas educativos en el punto de mira* (187-219). Madrid: Wolters Kluwer.

Herrera, E. (2016). *El absentismo escolar en menores*. [GRAL]. Universidad de Jaén, Facultad de Trabajo Social, España.
<https://tauja.ujaen.es/bitstream/10953.1/3662/1/TFG-Herrera%20Ruiz%2C%20Elvira.pdf>

Hernández, S. M. (2013). El educador social y la escuela. Justificación de la necesidad de la Educación Social en la escuela. *RES: Revista de Educación Social*, 16, 1-16. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5360147>

Martínez G, R. A., Álvarez B, L. (2005). Fracaso y abandono escolar en Educación Secundaria Obligatoria: implicación de la familia y los centros escolares. *Aula Abierta*, 85, 127-146. <https://dialnet.unirioja.es/download/articulo/2044877.pdf>

Martínez-Arias, R., Aguado, P., Álvarez-Monteserín, M. A., Colodrón, F., & Gallego, E. (2007). Prevalencia del absentismo escolar en la educación secundaria obligatoria: relaciones con variables sociodemográficas y familiares. *Psicología Educativa. Revista de los Psicólogos de la Educación*, 13(1), 35-63.

Mallett, C. A. (2016). Truancy: It's Not About Skipping School. *Child & adolescent social work journal*, 33(4), 337-347. <https://doi.org/10.1007/s10560-015-0433-1>

Melendro, E. M (2008). Absentismo y fracaso escolar: la educación social como alternativa. *Bordón: Revista de pedagogía*, 60(4), 65-77.

<https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/2912288.pdf>

Ortiz, D. J. S., Cornejo, V. R., Valderrama, T. G., Monroy, F. C., & Sánchez, R. D. R. (2017). EL ABSENTISMO Y ABANDONO ESCOLAR DEL ALUMNADO EN LA ENSEÑANZA OBLIGATORIA Y POSTOBLIGATORIA.

Peregrina, E. B., Blanch, J. S., González, N. A., & i Nicolau, P. R. (2014). Historias de vida y educación social: una experiencia de investigación y formación. *Tendencias pedagógicas*, 24(24), 71-84.

http://openaccess.uoc.edu/webapps/o2/bitstream/10609/39022/1/Bretones_TP2014_Historias.pdf

Ribaya, F. J. (2004). La gestión del absentismo escolar. *Anuario Jurídico y Económico Escurialense*, 44, 579-596.

Ribaya, F. J. (2011). El absentismo escolar en España. Saberes. *Revista de estudios jurídicos, económicos y sociales (2003-2014)*, 2, 17.

Romans, M., Petrus, A., & Trilla, J. (2000). De profesión, educador(a) social. *Barcelona: Paidós*.

Rué, J. (2003). El absentismo escolar. *Cuadernos de pedagogía*, 327, 59-63.

Sáez, L., (2005). La educación social: intervención socioeducativa en la problemática del absentismo escolar. *Indivisa. Boletín de Estudios e Investigación*, (6), 237-248.

Taylor, S. J., & Bogdan, R. (1987). *Introducción a los métodos cualitativos de investigación (Vol. 1)*. Barcelona: Paidós.

Vázquez, M. C., y Caballero, G. E. (2013). Absentismo escolar en Secundaria: diferencias entre nacionales e inmigrantes en la provincia de Huelva. *Enclave pedagógico*, 13.

VV.AA. (2003). Programa para garantizar el derecho a la educación: erradicación de la desescolarización y del absentismo escolar en el territorio de Bizkaia. *Gobierno Vasco, Diputación de Bizkaia y EUDEL.*